

# PROBA LIBREAK

## DERIO NEKAZARITZA ESKOLA LHII

### BASOA ETA NATURA-INGURUNEA KUDEATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

Heziketa ziklo honen lanbide-moduluak hurrengoak dira:

- Botanika agronomikoa
- Fitopatologia
- Nekazaritzako topografia
- Nekazaritzako eta basogintzako makineria eta instalazioak
- Ingurumen hezkuntzako teknikak
- Baso-inguruneko aprobetxamenduen kudeaketa
- Baso-mintegiarene kudeaketa eta antolamendua
- Ehizaren kudeaketa
- Arrantza kontinentalaren kudeaketa
- Mendien kudeaketa
- Natura-ingurunearen kontserbazioaren kudeaketa
- Baso-suteen kontrako defentsa
- Basoa kudeatzeko eta ingurunea kontserbatzeko proiektua
- Ingeles teknikoa
- Laneko prestakuntza eta orientabidea
- Enpresa eta ekimen sortzailea
- Lantokiko prestakuntza

**Lanbide-modulu bakoitzaren oinarrizko edukiak ziklo honetako Oinarrizko Curriculum Diseinuan azaltzen dira. Oinarrizko Curriculum Diseinua hurrengo estekaren bitartez lortu dezakezu:**

[https://ivac-eei.eus//upload/cf/documentos/23/aga\\_ts\\_ges\\_for\\_med\\_nat\\_dcb\\_e.pdf](https://ivac-eei.eus//upload/cf/documentos/23/aga_ts_ges_for_med_nat_dcb_e.pdf)

# BOTANIKA AGRONOMIKOA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa garatzeko galderez osatuta egongo da eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: prozedurako azterketa espezie desberdinen identifikazio azterketa izango da. Hamar espeziaren hosto eta adarrak jarriko zaizkio ikasleari eta horietatik 9 ezagutu beharko ditu azterketa gainditzeko.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptual eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,60 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,40 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.

# FITOPATOLOGIA

## 1. Azterketa mota.

Idatzizko azterketa bakarra izango da:

- Azterketa hau lanbide-modulu honen oinarrizko edukiekin zerikusia duten galderen garapenean oinarrituko da.
- Azterketak test motako galderen zati bat ere izango du, lanbide-modulu honen oinarrizko edukietan oinarrituta.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Azterketaren balio osoa 10 puntukoa izango da. Lanbide-modulua hau gainditu ahal izateko, azterketa honen nota minimoak 5 bat izan behar du eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.

## 3. Oharrak.

- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.
- Azterketara kalkulagailua ekarri daiteke.

# NEKAZARITZAKO TOPOGRAFIA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa moduluko oinarrizko edukien inguruko kalkulu ariketez osatuta egongo da. Galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: atal praktikoa egiteko, atal kontzeptuala gaindututa egon beharko da. Prozedurazko azterketan eskolako lursailan, teodolito batekin neurketak egingo dira puntu batzuen koordenatuak kalkulatzeko eta QGIS programarekin plano bat sortu beharko da.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptualaren eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,60 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,40 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gainditu behar da.
- Azterketaren iraupena 6 ordukoa da.
- Azterketarako kalkulagailua, eskudra, kartaboia eta eskalimetroa ekarri behar dira.

# NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa garatzeko galderez eta oinarriko edukien inguruko kalkulu ariketez osatuta egongo da. Galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: atal praktikoa egiteko, atal kontzeptula gaindututa egon beharko da. Prozedurazko azterketan oinarriko soldaduraren, piezaren mekanizazioaren, traktorearen maneiaren, lanabesen maneiaren, desbrozadora eta motozerraren maneiaren eta mantentzearen,...inguruko galdera eta kasuak planteiatuko zaizkio ikasleari. (Tresneria eskolak jarriko du, baina Norbanako Babes Ekipamendua ikasleak ekarri beharko du).

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptualaren eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,50 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,50 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 6 ordukoa da.
- Kalkulagailua erabili daiteke.

# INGURUMEN HEZKUNTZAKO TEKNIKAK

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: Test-motako galdera bidez neurtuko da. Horien balioa proba bakoitzean agertuko da. Erantzun okerrek zigortzen dute.
- Prozedurak: atal praktikoa egiteko, atal kontzeptuala gaindututa egon beharko da. Prozedurazko azterketan hurrengo jarduerak planteatuko dira: aplikazio informatikoekin panel digital bat sortzea, geolokalizatutako ibilbide autogidatu bat diseintzea eta ingurumen hezkuntzarako ikus-entzunezko materiala sortzea.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptualaren eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,2 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,8 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 6 ordukoa da.

# **BASO-INGURUNEN APROBETXAMENDUEN KUDEAKETA**

## **1. Azterketa mota.**

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa garatzeko galderez osatuta egongo da eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: Motozerraren mantenu eta prestaketa eta motoserraz (eta behar izatekotan beste tresnez) baliatuta, zuhaitzen apeatze, prozesatze eta pilatze lanak egin beharko dira (Tresneria eskolak jarriko du, baina Norbanako Babes Ekipamendua ikasleak ekarri beharko du).

## **2. Ebaluazio – irizpideak.**

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptual eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,50 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,50 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## **3. Oharrak.**

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 6 ordukoa da.
- Kalkulagailua erabili daiteke.

# BASO MINTEGIAREN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa garatzeko galderez osatuta egongo da eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: Prozedurazko azterketan oinarriko galderak eta mintegiko lanak planteatuko zaizkio ikasleari: mintegian erabiltzen diren azpiegiturak, materialak, lanabesak, ugaltzeko teknikak, etab.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptual eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,70 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,30 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gaindituta egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.
- Kalkulagailua erabili daiteke.



## **EHIZAREN KUDEAKETA**

### **1. Azterketa mota.**

Azterketak **atal bakarra** izango du.

- Azterketa hau lanbide-modulu honen oinarrizko edukiak zerikusia duten galderen garapenean oinarrituko da.
- Azterketak, gainera, ehiza-espezieen eta ehiza-txakurren identifikazio-zati bat izango du.

### **2. Ebaluazio – irizpideak.**

Azterketaren balio osoa 10 puntukoa izango da. Lanbide-modulua hau gainditu ahal izateko, azterketa honen nota minimoak 5 bat izan behar du eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.

### **3. Oharrak.**

- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.

# ARRANTZA KONTINENTALAREN KUDEAKETA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak **atal bakarra** izango du.

- Azterketa hau lanbide-modulu honen oinarrizko edukiekin zerikusia duten galderen garapenean oinarrituko da.
- Azterketak, gainera, arrain-espezieen eta arrantza-tresnen identifikazio-zati bat izango du.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Azterketaren balio osoa 10 puntukoa izango da. Lanbide-modulua hau gainditu ahal izateko, azterketa honen nota minimoak 5 bat izan behar du eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.

## 3. Oharrak.

- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.

## MENDIEN KUDEAKETA

### 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa garatzeko galderaz eta kalkulu ariketez osatuta egongo da. Galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: atal praktikoa egiteko, atal kontzeptuala gaindututa egon beharko da. Prozedurazko azterketan mendi bateko egur bolumena kubikatu beharko da. Kubikaziorako, mendian neurketak egiteko instrumentu eta aparatu desberdinak erabili beharko dira eta mendi batean hartutako zuhaitzen datuekin mendiko egur bolumena kalkulatu beharko da EAE-an erabiltzen diren kubikazio ekuazioekin.

### 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptualaren eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,55 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,45 \times \text{Prozedurazkoak}$$

### 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gainditu behar da.
- Azterketaren iraupena 6 ordukoa da.
- Azterketarako kalkulagailua ekarri behar da.
- Atal praktikotan Excel programa erabiliko da.

# NATURA-INGURUNEAREN KONTSERBAZIOAREN KUDEAKETA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bi atal izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak):

- Kontzeptuak: azterketa test-motako galderez, galdera laburrez edota garatzeko galderez osatuta egongo da. Galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.
- Prozedurak: atal praktikoa egiteko, atal kontzeptuala gaindututa egon beharko da. Atal hau lanbide-moduluaren oinarizko edukien kasu praktikoen ebazpenen bidez, fauna eta flora espezien identifikazioaren bitartez edota faunaren arrastoen eta oinatzen identifikazioaren bitartez neurtuko da. Horien balioa proba bakoitzean agertuko da.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, atal kontzeptualaren eta prozedurazkoen nota minimoa ez da 5 baino txikiagoa izango, nahiz eta egindako batez bestekoak 5 baino gehiago eman.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,55 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,45 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Prozedurazko atalaren azterketa egin ahal izateko kontzeptuzko edukien azterketa gainditu behar da.
- Azterketa gainditzeko atal bakoitza gainditua egon beharko da.
- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.
- Kalkulagailua erabili daiteke.

## **BASO-SUTEEN KONTRAKO DEFENTSA**

### **1. Azterketa mota.**

Azterketak **atal bakarra** izango du.

- Azterketa hau lanbide-moduluaren oinarrizko edukiekin zerikusia duten galderen garapenean oinarrituko da.

### **2. Ebaluazio – irizpideak.**

Azterketaren balio osoa 10 puntukoa izango da. Modulua gainditu ahal izateko, nota minimoa 5 izango da eta galdera bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.

### **3. Oharrak.**

- Azterketaren iraupena 3 ordukoa da.

# INGELES TEKNIKOA

## 1. Azterketa mota.

Azterketak bost ariketa izango ditu (kontzeptuak eta prozedurak). Ariketa bakoitzaren balioa azterketan zehaztuko da.

1. Entzumena (hutsuneak bete)
2. Irakurmena (egia ala gezurra)
3. Hiztegia (definizioak eta terminoak lotu)
4. Gramatika (hutsuneak bete)
5. Idazlana (email formala)

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Azterketaren balio osoa 10 puntukoa izango da. Lanbide-modulua gainditu ahal izateko, ariketen batezbesteko gutxieneko nota 5 izan behar da.

## 3. Oharrak.

- Azterketaren iraupena ordu bat eta erdikoa izango da.
- Hiztegiak edo Internet erabiltzea debekatuta dago.
- Ariketa guztien hiztegia eta gaiak moduluaren arloarekin lotuta daude.

## LANTOKIKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

### 1. Azterketa mota.

Kontzeptuzko edukiak: Test-motako galdera edo galdera laburren bidez neurtuko dira. Horien balioa proba bakoitzean agertuko da. Test galderetan erantzun ez zuzenek zigortuko dute.

Prozedurazko edukiak: Ariketa praktikoen ebazpenen bidez neurtuko dira.

### 2. Ebaluazio – irizpideak.

Kalifikazioa kontzeptuzko edukiak eta prozedurazko edukiak gehituz lortuko da. Dena den, azterketa gainditzeko bai kontzeptuak bai prozedurak gutxienez 5 bat izan beharko du.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,50 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,50 \times \text{Prozedurazkoak}$$

### 3. Oharrak.

- Azterketaren iraupena 2 ordukoa da.
- Azterketarako kalkulagailua ekarri behar da.

# ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

## 1. Azterketa mota.

Kontzeptuzko edukiak: Test-motako galdera edo galdera laburren bidez neurtuko dira. Horien balioa proba bakoitzean agertuko da. Test galderetan erantzun ez zuzenek zigortuko dute.

Prozedurazko edukiak: Ariketa praktikoen ebazpenen bidez neurtuko dira.

## 2. Ebaluazio – irizpideak.

Kalifikazioa kontzeptuzko edukiak eta prozedurazko edukiak gehituz lortuko da. Dena den, azterketa gainditzeko bai kontzeptuak bai prozedurak gutxienez 5 bat izan beharko du.

Lanbide-moduluaren nota horrela lortuko da:

$$\text{Azken nota} = 0,50 \times \text{Kontzeptuzkoak} + 0,50 \times \text{Prozedurazkoak}$$

## 3. Oharrak.

- Azterketaren iraupena 2 ordukoa da.
- Azterketarako kalkulagailua ekarri behar da.